

GETXO ANDRA MARI 1

Getxo historikoki **Goierri** eta **Beherriren** (ahoz Bearri) artean banatzen zen. Goierrikoak elizaren iparraldean bizi zirenak eta Beherrikoak elizaren hegoaldean. Batak eta besteak elizara sartzeko ate ezberdinak zituzten; eskumako atetik (batzokiaren aldeko atetik) Goierrikoak sartzen ziren eta ezkerretik, Beherrikoak.

XIV. mendera arte elizaren kanpoaldean zegoen kanposantua; eliza honen kasuan, elizaren aurrealdean; gero, Trentoko kontzilioaren eraginez, gorpuak barrualdera pasatu ziren, jainkokoarengandik hurbilago egotekotan; XIX. mende hasieretan, osasun kontuengatik, herriguneetatik ateratzeko agindua egon zen eta **Getxon**, kanposantua lekuz aldatu bazuten ere, ez zuten herritik kanpora atera, **Trinitarioen** elizaren atzeko aldera mugitu zutelako eta beranduago, XIX. mendearen amaieretan, gaur egun dagoen lekura eraman zuten.

Herriko izenak nahaste bat ere sortzen du. Hau inguru guztiau **Getxo** da eta bere lurralde guztia ere Getxo zen baina beste populazio-gune batzuk indarra hartu ahala eta urruntasunak lagunduta, Getxo deitzeak arazoak ekarri zituen eta hortik, beti ere XX. mendetik aurrera, inguru honi **Elexaldea** deitzea eta Getxo, udalerrri osoa deitzeko gordetzea.

Jatorria **Getxo** dorretxea da; **Jauregi** baserriaren inguruetan omen zegoen; esaten da gero ikusiko den Jauregi etxea (Yauregi edo **Yauri** ahozkatuta), dorretxearen harriekin egin zela

Elizaren aurreko horma honetan agertzen dira inguru honetako baserrien izenak, 1973an erabiltzen zen grafiaz idatzita; ez dira agertzen Elexaldetik kanporako baserriak.

Eliza inguratzen jarraituz, X. mendekoa omen den leihotxo bat ere badago.

Erdiaroko errealtatez soziopolitikoak, Bizkaia osoan bezala, eragin handia izan zuen Getxon ere pertsonen arteko botere harremanak mendetarako finkatu baitzituen. **Martiartu** eta **Getxo** ziren hemengo familiarik boteretsuenak (leinuak) eta beraien artean bailara osoa menperatzen zuten, berauenak ziren errotak, herritarrek eta balio guztiak. Historiaren momentu batean, familia biak bat egin zuten interes berdinak edo antzekoak zituztelako eta armarria ere partekatu. Balioko gauza guztiak bezala, Andra Mariko eliza hau ere Getxo leinuak sortua izan zen eta bere funtzio erlijiosoez gain, eskumenak lortzea eta ingurukoek hamarrenak kobratzea ere bazuen.

GETXO ANDRA MARI 2

Elizaren alderdi erlijiosoari deitzen dion esaldi indartsu bat dago aurrealdean (Danak jo, azkenak il) izatez testu latino bat da eta iparraldeko elizetan askotan agertzen dena, famatuena Sarako elizako "oren guziek dute kolpatzen azkenak hobiratzen". Bizitzaren iragankortasuna gogorarazteko idatzia.

Getxo elizatea da eta horrek esan nahi du udalerrria izan aurretik, herritarren arteko bilerak egiteko tokia elizaren alboko landa hau zela. Meza ostean, jendea eliza alboko landan batzen zen eta herriari zegozkion erabakiak hartzen zituzten.

GETXO ANDRA MARI 3

Arkupetan dagoen mahaia, "Pielarria" da, Alkatearen harria; elizatean hartutako erabakiak idatziz jartzeko tokia.

Ateburuan, harmarria; esaten denez etxeren batetik, baliteke Martiartu dorretik ekarritako harmarria eta gero leinu biek bat egin zutenean, Getxotarren hartutako harmarria.

Bizkaian hainbat eta hainbat udalerritako harmarriak, Antonio Trueba idazleak jarritakoak dira; izan ere, Udalerriek berez ez zuten harmarririk. Zer egin zuen bada Antonio Truebak? Inguruko jauntxoek harmarriak ezarri udalerrri bakoitzari.

Getxoren kasuan, udalerrri moduan ez zuen harmarririk eta Truebak hau proposatu zuen. Izatez Martiartu dorreko harmarria da baina Getxo leinukoena ere beraiantzat hartu zuten, Getxo familiak, Martiartu familiarekin bat egin zuelako.

Leloa argia "Kaltea dagianak, bizarra lepoan" hau da, kaltea egiten diguna, dabilela kontuz, zain dezala sorbalda, begiratu dezala atzera ea nor datorkion segika (izan dezala Bizarra lepoan)

Getxo izenaren jatorriari buruz ez dago ezer argi; batzuk esaten dute Getxo "goitxotik" etorri ahal dela baina horrek ez dauka ez hanka ez bururik. Etimo iluna da, ez dago ia dokumentaziorik; baliteke patronimikoren bat egotea izenaren atzean "Ketius" edo antzeko izen propioen bat egon ahal dela eta orduan esanahia baliteke "Ketiusena" edo izatea baina ez dago ezer argi eta hipotesi bat da bakarrik. (**Alango**=Alanicusena, **Berango**= Beraniusena, **Durango**= turanicusena...) edozein kasutan ez dago argi.

GETXO ANDRA MARI 4

Ellexalde inguruari deitzeko erabiltzen da baina elizaren azpian dagoen etxeari ere horrela deitzen zaio. Ezizen moduan askotan agertzen da; beste toki batera joan eta ellexalderena deitzea; **Dilizena** edo besteen kasuan bezala; abizena baino gehiago nondik etorritakoak diren adierazten duen ezizena.

GETXO ANDRA MARI 5

Lehenengo eskola eta Udaletxea gaur egun Batzokia den toki berdinean egon ziren. Ez zen material honekin egin edo txarto egin zuten eta bota egin behar izan zuten, gero berregin eta gaur egun batzoki funtzioak betetzen ditu.

GETXO ANDRA MARI 6

Botika dagoen lekuan **Matxalene** izeneko etxe bat egon zen. XIX. mendean populazioa asko ugartu zen eta etxeei deitzeko beste sistema bat indartu zen, jabearen izena (edo ezizena edo lanbidea) Kasu honetan Matxalene deitzen zen emakume baten etxea. Idatziz horrela agertu ez arren (Magdalena izango zen), ikusten da Matxalene izen arrunta zela 1900 inguruan Getxon.

Antzeko kasu asko dago inguruetan gero ikusiko ditugun, **Osabene**; osabaren baten etxea izango zen (Jon Bilbao idazlearen etxea izan zen). **Yuliñe**; Julian izeneko batena eta beste batzuk.

GETXO ANDRA MARI 7

Baserri estandarrek Getxon bi hegal ditu. Aurrealdean familia eta atzealdean animaliak eta ganbara. Desamortizazioaren ondorioz baserriek ekonomikoki ondoratu egin ziren, baso eta lur komunalak amaitu zirenean, animaliek ez zuten non jan eta herritarrek ez zuten nondik hartu egurra. Hondamendi ekonomikoa izan zen hemengoak bezalako nekazari txikientzat; baserriak esplotazio hutsak bihurtu ziren, eta emigrazioa eta beste fenomeno batzuk areagotu egin ziren, euren artean, baserriak bitan banatzea. **Maidagan** baserria da horren adibidea

Maidagan izen iluna da baina oso zaharra da hemen, abizena aspaldi dokumentatzen delako Maidagan edo Maidana moduan.

Maidagan izena desplazatu, lekualdatu egin da eta gaur txarto ulertzen da; Trenbidetik Maidagan baserri honetara datorren bideari Maidagan estrata deitzen zitzaion; denborarekin, estrata hori errepide bihurtu da eta kalearen izena hartzen du eta jendeak pentsatzen du Maidagan kalearen beheko aldea dela baina izatez estrataren amaiera adierazten du. Antzekoa adibidea da **Sarrikobaso**; trenbidetik abiatzen zen bidea zen Sarrikobasorako bidea, ez gaur ulertzen dena.

Errepidetik ikusten duguna baserriaren atzeko aldea da; izan ere hemengo baserrien atzeko aldea itsasoaren kontra dago denboraleengatik; beste baserri batzuen kasuan, Baserri inguruko kasua adibiderako (Baserri auzoa, Santa Koloma ermitaren ingurua da), beste bat da, gainera atzealdean ez zeukaten leihorik eta batzuetan gurutzera zuten denboraleetatik babesteko.

GETXO ANDRA MARI 8

Jauregi izena jartzen zitzaion (ahoz **Yauri** edo **Yauregi**) besteak baino etxe dotoreago edo indartsuagoa zenari. Ez dugu pentsatu behar Frantziakoak bezalako etxe izugarri bat. Etxe apur bat erosoagoa baino ez. Gero, euskararen indar galeraren erakusgarri, hurrengo belaunaldiek **Palazioak** egingo dituzte; jauregi berbak indarra galtzen du eta palazioak izatera pasatzen dira.

Ez dugu ibilbidean ikusiko baina hizkuntzaren aldetik polita da **Kortina** izena; etxea hemendik hurbil dagoen arren beste leku batean dago, institutu aurrean; izena "gorta" hitzetik dator, eta Korta esan nahi du edo harriz inguratutako gun bat. Getxoko izenik zaharrenetakoa da; erromantzea eta euskararen nahasketa bat.

Jatorria **Getxo** dorretxea da; **Jauregi** baserriaren inguruetan omen zegoen; esaten da gero ikusiko den Jauregi (Yauregi edo Yauri ahozkatuta) dorretxearen harriekin egin zela)

GETXO ANDRA MARI 9

Maidagan baserria pasatuta, hurrengo estrata **Zientoetxe** baserria zeramana zen, Zientoetxe, errepide hau amaitzen den tokian dagoen etxea da; gaur egun txaleta eta bere sasoian baserria. Estrata horren gainean egina denez, horregatik deitzen da gaur egun Zientoetxe errepidea.

Toponimo iluna, erdara daukagu tartean eta euskal toponimoak desitxuratzen ditu batzuetan eta hau izan ahal da horren adibide bat; "Zientotxe"tik (toponimia euskalduna) sortu zen Zientoetxe? Ez dakigu. Nolabait, euskararen prestigio faltak toponimoaren aldaera glamourosoak bilatzera eraman zituen, gazteleraz ulergarriak;

horren beste adibide bat, Sopelan dagoen "**Casarreina**"; ulertezina euskaraz baina gaztelaniaz oso dotorea; horren atzean "**Gatzarriñe**" dago.

GETXO ANDRA MARI 10

Diliz estarta, Dilizera doa baina gunea hau **Arteaga** da; hemen ere baserriak mozorrotuta ditugu

Artagaurrekoa, Arteagaosteikoa eta **Arteagabarri**. Aurrekoa eta osteikoa; nola guztiak itsasoaren kontra jartzen diren, **ostekoa** bere atzean dagoena eta **aurrekoa**, aurrekaldekoa.

Ortuak eta soloak nagusi hemendik aurrera. Ortuak baratzearen sinonimoa eta soloa sail handiagoa, garia eta antzekoak ereitekoa zan.

Ortuan, sail txikietan barazkiak erein eta landatzen ziren. Erein, hazia lurlean sartzea da; landatzea barriz, landare txikia lurlean sartzea da. Esan bezala, ortuetan, bata zein bestea egiten da baina soloetan, sail handiagoetan, erein egiten da; hazia sartzen da lurlean eta itxaron egiten da. ortuan, normalean arreta gehiago jartzen da, interbentzio handiagoa izaten du jabeak; soloetan ostera, ereindakoa batez ere eguraldiaren eta inguruaren berezitasunen menpe geratzen da.

GETXO ANDRA MARI 11

Galea izenak lursail handi bat adierazten du; mendez mendez, getxoztarrek animaliak eramaten zituzten hona zerbait jan zezaten; herri-lurrak ziren, Getxotarrenak **Neguriko** lurrak edo **Areetakoak** bezala.

1845ean hasi ziren Madozen desamortizazioa deitzen dena; estatuak beretzat hartu zituen herri lur handiak gero enkantean saltzeko. Esan bezala, hori kalte handia izan zen hemengo baserriar txikientzat, animalientzako bazka barik geratu zirelako eta horrekin batera etxeak egiteko/konpontzeko edo neguan sua egiteko egurrik barik.

Getxoztarren lurra zen hau estatuak beretzat hartu ondoren saldu egin zuen eta lur-jabe handien eskuetan geratu zen. Kasu honetan Martinez Rivasek erosi eta hesitu guztiak beretzat etxea egiteko.

Antzekoa izan zen **Areeta** eta **Neguriren** kasua ere ; hauek haremunak eta okupatu gabeko lurrak ziren eta desamortizazioaren ondorioz, Maximo Agirre eta beste batzuk erosi zituzten proiektu mobiliario handi bezala.

Desamortizazioen kasuan gainera, hain zen handia saldu beharreko lursaila, oso merkea izan zela salmenta prezioa.

GETXO ANDRA MARI 12

Hau da **Diliz etxea**; ikusgarria eta aipagarria teilatuko habean dagoen 1693ko esaldia.

GETXO ANDRA MARI 13

Ibarragoikoa eta **Ibarrabekoa** edo **ibarra**. Hemengoak dira Ibarra familia ezagunekoak.

GETXO ANDRA MARI 14

Martiturri. Dokumentazio ez oso zaharrearan agertzen da baina... Marti jabearen izena edo izango da.

Txatxarro erreka izena da eta hau bertan egindako ikuztegia edo labaderoa. labaderoak auzoetako bilgunean ziren, oso leku alaiak; emakumeak garbitzera, umeak jolastera...izugarritzko giroa sortzen zen hauen inguruetan.

Getxo oso ur gutxiko tokia da, horregatik hau bezalako tokiak ziren bizitza sozialaren erdigune nagusiak, hemen biltzen zen jendea egunero. Animaliak edateko, etxeetarako ura eramateko, arropak garbitzeko hona etorri beharra zegoen eta hau bezalako labaderoak emakumez eta umez beteta egoten ziren.

GETXO ANDRA MARI 15

Interesgarria da hemengo toponimian dagoen fitonimoen ugaritasuna. Fitonimoak, landareen izenak erabiliz sortzen diren leku-izenak dira: Eta inguruotan adibide ugari dago.

Saratsaga, Gaztañaga, Urretxaga... Gaztañatxu (Gaztañagatxu)

Arteaga, Gaztañaga **-aga** amaierak ez du itzulpenik, tokia adierazten du, toponimoa adierazten du; Arteak dauden tokia, Gaztainak dauden tokia...gauza bera izan ahal da **-eta** amaiera

Getxo osoan ere ugariak dira landareetatik eratortzen diren toponimoak:

Salsidu (Salce/salse 'sahatsa')+du(i)a: Sahatsak dauden lekua.

Lexarreta: lezar+eta: Lizarrak (leixarrak-lizarrak-lexarrak) dauden lekua.

Makaleta: Makal+eta: Makalak (txopoak) dauden lekua.

Aretxeta: Aretx+eta: haritzak dauden lekua.

Saratsaga: Sahats+aga: Sahatsak dauden lekua. Sauces.

Arteaga: Arte+aga: Arteak dauden lekua. Encinas.

Horrelako toponimia sortzeko **-AGA**, **-ETA** eta **-TZA** atzizkiak erabiltzen dira batez ere

-AGA, gaur egungo **-ak** pluralgilearekin dago lotuta. Umeak > *umeak+(e)i > *umeaga+ei > umeei. Dena dela, badirudi zaharragoa dela ahostuna (sonora): -aga > *-ag > -ak.

-ETA, gaur egungo deklinabide markekin lotura estua du: (ugaritasuna adierazteko) HARRI-AK. Nora zoaz? HARRIETARA. Non zaudete? HARRIETAN. Azkenean lekua Harrieta > Arrieta. Areeeta...

-TZA, Hondartza: Playa, arenal. Hondar+tza. Jendetza, papertza... Artatza, Arte+tza: Arte (encina) edo Artelatz (alcornoque) ugari dagoen lekua

GETXO ANDRA MARI 16

Otsandategi ikusten da; **Berangoko** dorretxea. Emakume izena da Otsanda, Otsoaren femeninoa; gazteleraz, "Loba" izango litzateke. Erdiaroan eta Trentoko kontziliara arte horrelako izenak asko erabiltzen ziren.

Perune; Peruenatik, pertsona izena. Izen horiek herrian erabiltzen ziren baina gero elizan, "Pedro" zen, Trentoko kontzilioak hizkuntza administratiboan alde egin

zuelako, hau da gaztelaniaren alde; orduan elizaren hizkuntza zeregin administratiboetako gaztelania izatera pasatu zen. XVI. mendean, herritarren %15 edo "Peru" izenekoa zen.

GETXO ANDRA MARI 17

Oso interesgarria da eta esaten da **Muru** toponimoak burdin arora garamatzala; oso toponimo zaharra da eta mendiari ezker dauka izena baserriak ez alderantziz. Segur aski hor burdin aroko bizitokiren bat edo ager liteke egunen batean.

Tontorrean dagoen oktogono formako etxe horretan bizi izan zen Elias Amezaga euskal idazlea eta pentsalaria.

GETXO ANDRA MARI 18

Goñi; etimologia iluna da ez du ematen pertsona izenetik datorrekin Goñia ere erabiltzen delako; artikulua dagoena, ez dago pertsona izenik.

Etxe hau hau **Goñiosteikoa** edo **Goñigoikoa** izango da 5 etxebizitza atera zituzten hemendik.

Goñizarra etxea ere badago Geroa ikastola baino apur bat beherago dago.

GETXO ANDRA MARI 19

Torrebarria. Etxea 1810ekoa da lehenengo aipamena. Toki zehatza ez da agertzen. Dorrerik inon egon izan balitz, eskrituretan "la antigua torre" edo horrelakoren bat agertuko zen baina momentuz dakiguna da nahiko berria zela.

GETXO ANDRA MARI 20

Aingeruaren etorbidea Telletxetik Aingeruaren baselizara doan bidea.

Auzo, edo eta kale bati izena ematen dion Aingeru edo hobeki esanda Aingeru Guardakoari eskeinitako baseliza hau 1649an eraiki zuen Andra Maria elizako erretoreak. Euskal Herrian ohikoa da baselizak bide ertzetan edo bide gurutzetan egotea bidaiariei babesa emateko. Bertan abere azoka egiten da dagokion egunean, urriaren 2an.

Aingeru guardakoaren baselizak bi irudi ditu, Aingeru guardakoa eta Errosarioko ama. Santutxua da (erdarazko 'humilladero'). Ermita mota hau bide ertzetan, eta bide gurutzetan jartzen ziren. Getxoztar ugarik, tradizioz, diru apur bat uzten zuten testamentuan ermita hau zaharberitu eta mantentzeko.

Bentazarra (Taberna)

Aingeruaren aurrean dagoen etxea, garai batean benta izan zena. batzuek Benta esaten diote. XVIII. mendean, bertako Benta zen.